

330. artikulua. Babes eskubidea sortzeko eskakizunak.

1. Jarduera eteteagatik babes eskubidea aitortuko zaie ondorengo eskakizunak betetzen dituzten langile autonomoei:

a) **Kidetuta eta alta eginda izatea** Norberaren Konturako Langile Autonomoen Erregimen Berezian, edo, hala egitea egokituz gero, Itsasoko Langileen Erregimen Berezian.

b) **Jarduera eteteagatik kotizazio aldi gutxienekoa beteta izatea**, 338. artikuluan adierazi bezala.

c) Jarduera eteteko lege egoeran izatea, 300. artikulua adierazitako jarduera konpromisoa sinatzea eta lan merkatuan berriz sartzeko asmo aktiboa egiaztatzea, langileari dagokion autonomia erkidegoko enplegu zerbitzu publikoak edo, hala egokitu denean, Itsasoko Gizarte Institutuak deituta prestakuntza, lanbide orientazio eta ekintzaile jarduera sustatzeko ekimenen bitartez.

d) **Ordaindutakoaren arabera erretiro pentsioa jasotzeko eskubidea izateko ohiko adina bete gabe izatea**, langile autonomoak horretarako eskatutako kotizazio aldia egiaztatuta ez duenean izan ezik.

e) Gizarte Segurantzako kuota ordainketa **egunean izatea**. Hala ere, baldin eta jarduera eten den egunean baldintza hori beteta ez badago, organo kudeatzaileak ordainketa egitera gonbidatuko du langile autonomia, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epe luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeak ondorio erabatekoak izango ditu babes eskubidea eskuratu ahal izateko.

338. artikulua. Prestazio ekonomikoaren iraupena.

1. Jarduera eteteagatik jasotzeko prestazioaren iraupena jarduera eteteko lege egoeraren aurreko berrogeita zortzi hilabeteen barruan gauzatutako kotizazio aldien arabera izango da; horietako hamabi, gutxienez, jarraian jarduera etetearen aurreko unekoak izan behar dira, honako eskala honen arabera:

Kotizazio aldia – Hilabeteak	Babes aldia – Hilabeteak
Hamabitik hamazazpira.	4
Hemezortzitik hogeita hirura.	6
Hogeita lautik hogeita bederatzira.	8
Hogeita hamarretik hogeita hamabostera.	10

Kotizazio aldia – Hilabeteak	Babes aldia – Hilabeteak
Hogeita hamaseitik berrogeita bira.	12
Berrogeita hirutik berrogeita zazpira.	16
Berrogeita zortzitik aurrera.	24

2. (Ezabatua)

3. Jarduera uzteagatik babes ekonomikorako eskubidea aitortu zaion langile autonomoak beste aitorden bat eskatu ahal izango du, baldin eta legezko eskakizunak betetzen badira eta prestaziorako azken eskubidea aitortu zitzaionetik hemezortzi hilabete igaro badira.

4. 1. eta 2. ataletan aipatutako kotizazioaldiak zehaztu ahal izateko:

a) Egokia den erregimen berezian jarduera eteteagatik egindako kotizazioak bakarrik hartuko dira kontuan.

b) Izaera bereko lehenagoko eskubide bat aitortzeko zenbatu gabeko jarduera eteteagatik egindako kotizazioak hartuko dira kontuan.

c) Kotizatutako hilabeteak hilabete oso bezala zenbatuko dira.

d) Jarduera uzteagatik jasotako azken prestazioa sortu zuten kotizazioak ezin izango dira zenbatu geroko eskubide bat aitortzeko.

e) Itsasoko Langileen Erregimen Berezian, eskumena duen agintaritzak onetsitako nahitaezko debekualdiak ez dira kontuan hartuko jarduera eteteko lege egoeraren aurreko hamabi hilabete jarraituko aldia zenbatzeko, betiere, baldin eta debekualdi horietan jarduera eteteagatik prestaziorik jaso ez bada.